



UNITATEA	<b>EUSKARA ETA HEZKUNTZA</b>
XEDEA	<b>DIRULAGUNTZA IZENDUNA: LASKORAIN</b>
ORDEZKARIA	<b>IÑAKI OLAETXEA AMONARRIZ</b>
TITULARRA	<b>USABALGO LASKORAIN IKASTOLA S COOP LTDA</b>

### ALKATETZA DEKRETUA

**ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI** Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluekin; Udal Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 116. artikuluekin; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluekin; eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuarekin.

### IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak 2017ko apirilaren 25eko Osoko Bilkuran onartu zuela Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO). Geroztik, bi aldaketa izan ditu: GAO, 68. zk., 2023-01-26an; eta GAO, 89. zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028ko Plan Estrategikoan sartua dagoela honako dirulaguntza-lerro hau: *Laskorain (etorkinen euskalduntzea)*. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2025eko azaroaren 27an (GAO, 7. zk., 2026-01-13).

HIRUGARRENA.- Tolosako Udaleko erregistroan, eskaera hau egin duela Iñaki Olaetxea Amonarrizek, Laskorain ikastolaren izenean, 2026ko martxoaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 2026-3809): 2026ko jardunaren dirulaguntza izenduna jasotzea.

### KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Titularrak badaukala gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion, aintzat hartuta zer xedatzen duen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 3. eta 4. artikuluetan.

BIGARRENA.- Prozedura honetan araudi hau dela aplikatu beharrekoa:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Lege Orokorri buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen lege orokorraren erregelamendua onartzen duena.



4. Toki Erakundeen Zerbitzuei buruzko Erregelamendua, 1995eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onartua.
5. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
6. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
7. 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituena.
8. Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, Tolosako Udalbatzak 2023ko urtarrilaren 26an onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2023ko apirilaren 11n (68. zk.).

**HIRUGARRENA.-** Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2026ko martxoaren 10ean, dirulaguntza ematea proposatu zuela, baita horretarako hitzarmena sinatzea ere.

**LAUGARRENA.-** Idazkaritza Saileko teknikariak, 2026ko apirilaren 28ko txostenean, hitzarmen-proposamena aztertutik, adierazi zuela legezko baldintzak betetzen dituela.

**BOSGARRENA.-** Kontu-hartzaitza Saileko teknikariak, 2026ko maiatzaren 5ean, dirulaguntza izenduna ematearen aldeko txostena egin zuela.

**SEIGARRENA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. s) artikularen arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola dirulaguntza izenduna emateko eskumena.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

## **E B A Z T E N   D U**

**LEHENA.-** Dirulaguntza izenduna ematea Laskorain ikastolari, 8.202 euroko zenbatekoarekin, 2026ko udal-aurrekontuko partida honen kargura: 0900.481.17.335.10.

**BIGARRENA.-** Dirulaguntza bideratzeko hitzarmen hau sinatzea Laskorain ikastolarekin:

**DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA LASKORAIN IKASTOLAREN ARTEKOA, 2025-2026 IKASTURTEKO ERREFORTZU-SAIOETARAKO.**

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan,

**BILDU DIRA**



**Alde batetik**, Angel Martinez de Rituerto Arregui, Tolosako alkatea, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua araberaz, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

**Bestetik**, Iñaki Olaetxea Amonarriz, Usabalgo Laskorain Ikastola SCLren izenean (IFK: F20098307), Pedro Elozegui Bergareche notarioaren aurrean egindako ahalordetzaren bidez baimenduta.

Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, badutela hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna, eta, horretarako, honako hau

### ADIERAZTEN DUTE

I.- Laskorain ikastolak, 2026ko martxoaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 2026-3809), dirulaguntza izendunaren eskaera egin zuela Udal honetan, non proiektuaren eta jardueraren plana aurkeztu zuen, bat etorrita Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoarekin.

Memoria horrek honako aurrekontu hau du: 8.202 euroren gastuak eta 8.202 euroren diru-sarrerak (azken zenbateko horretan kontuan hartuta dago hitzarmen honen bidez Tolosako Udalak onuradunari onartuko dion dirulaguntza).

Aurrekontu horrek ondorengo jarduera hauek gauzatzea du helburu:

- Euskara indartzeko saioak. 2025-2026 ikasturtean, Euskal Herrira iritsi berri diren ikasleei euskara indartzeko saioak emango dizkiete, haien gaitasuna areagotzeko.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak, eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitateak ez daukala debekurik dirulaguntzak lortzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren (DLO) 13. artikulua 2. eta 3. ataletan adierazitako gisan.

IV.- Bere estatutuen arabera, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xedearekin eta helburuekin: hain justu ere, euskararen erabilera normalizatzea, ikasleak euskaraz heziz, euskara-gaitasun sendoa eduki dezaten.

V.- Udalak 8.202 euroko kreditua duela 2026ko udal-aurrekontuan, 0900.481.17.335.10 partidan, erakunde eskatzailearentzako dirulaguntza izendunaren kontzeptupean.

VI.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, hau ezartzen duela 25. artikuluan: «*Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake*».



VII.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udal-eskumen izendatzen duela euskararen erabilera dinamizatzea, eta, berariaz onartzen duela helburu horrekin hitzarmenak egitea. Tolosako Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoan (2025-2034) jasoak daude dirulaguntza honen helburuak: batetik, jarreraren eremuan, JM2 erronka («*Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu*»); bigarrenik, ezagutzaren arloan, EG2 erronka («*Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu*»); eta hirugarrenik, erabileraren arloan, E1 erronka («*Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu*»).

VIII.- Hitzarmen hau honako lege-arau hauen babesean egiten dela:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei burukoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Horretarako, eta bi alderdiak ados egonda, hitzarmen hau sinatu dute, eta honako klausula hauek ezarri dituzte:

## KLAUSULAK

### **Lehena: Xedea.**

Dirulaguntza izenduna ematea Laskorain ikastolari, 8.202 eurokoa, euskara indartzeko saioak finantzatzen laguntzeko.

### **Bigarrena: Dirulaguntzaren izaera.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute. Zehazki, honako hauen babesean ematen da dirulaguntza hau: DLOren 22.2.a) artikulua eta Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa. Dirulaguntza izendun gisa aurreikusia dago toki-erakundearen aurrekontuetan eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

### **Hirugarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

Honako jarduera hau lagunduko da diruz:

- Euskara indartzeko saioak. 2025-2026 ikasturtean, Euskal Herrira iritsi berri diren ikasleei euskara indartzeko saioak emango dizkiete, haien gaitasuna areagotzeko.

### **Laugarrena: Hitzarmenaren indarraldia eta jarduerak egikaritzeko epea.**



Hitzarmen honek 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean egingo dira.

### **Bosgarrena: Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.**

Hitzarmen honen bidez onartuko den dirulaguntzaren zenbateko osoa 8.202 eurokoa da, Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorreko partida honen kargura: 0900.481.17.335.10 (2026).

Entitate onuradunak aurkeztu duen eta diruz lagunduko den proiektuaren edo jardueraren aurrekontua —edo gerora egindako edozein aldaketa— erreferentziazkoa izango da dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori kalkulatu ahalko da proiektuaren edo jardueraren azken kostuaren portzentaje moduan.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik jasotakoekin, kalterik egin gabe dirulaguntza horiek erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantzaketa-kasuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da, eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarreren edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

b) Finantzaketan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

### **Seigarrena: Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.**

Aldaketaren bat gertatzen bada aurkeztu den eta dirulaguntzaren xede den proiektuan, Udalari jakinarazi beharko zaio, eta hark, laguntza eman duen organoaren arabera, berrikusi ahal



izango ditu laguntzaren zenbatekoa, finantzaketa-ehunekoa edo hartutako konpromisoak. Aldaketak egiteko, aldaketa-akordioa sinatuko da.

Sinatzaileetako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak, kontuan hartuko da Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 37. artikuluan aurreikusitakoa.

### **Zazpigarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.**

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe bat etortzea lagundutako jardueraren izaerarekin; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe) obra-exekuzioaren kostuari dagokionez, edo 15.000 eurotik gorakoa (BEZa sartu gabe) aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun-horniketa edo zerbitzu-prestazioen kasuan, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzailei, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea.

Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo behar bezala arrazoitu gabe aukeratu bada proposamen ekonomikori onena ez den beste bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasunaren edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak entitate onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: enitate onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Honako hauek ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek eragindako gastuak.
- Zeharkako zergak, errekuararriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.



- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Entitate onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak, jarduera garatzeko erabiltzen badira (salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira).

### **Zortzigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Entitate onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

Justifikaziorako baliagarri diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke.

Dirulaguntza modalitate honen bidez justifikatuko da: «justifikatzeko kontu erraztua». Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira 2026ko uztailaren 31 baino lehen:

- a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jardueramemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak.

Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta.

- b) GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoan eskuragarri). Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (xls.), sinadurarik gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, adieraziko da Tolosako Udalak zer ehuneko finantzatu duen, gastu horri dagokionez.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu egingo da diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera, izandako desbideratzeak adierazita.



Gastuaren zenbateko osoak islatu beharko du diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa.

- c) BAL dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da. Entitate onuraduneko presidentek edo idazkariak sinatu beharko du.

GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin.

- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko «kontu sinplifikatua» modalitatea erabiliko denez, dirulaguntza ematen duen organoak gastu-frogagiriaren lagin bat aztertuko du, dirulaguntzaren aplikazioa egokia dela egiaztatzeko. Tolosako Udaleko Dirulaguntzen ordenantza orokorreko 31.3 artikuluari jarraikiz, lagin hau eskatuko da:

- Egiaztagiria hamar edo hamar baino gutxiago badira: % 100.
- Egiaztagiria hamar baino gehiago eta hogeita edo hogeita baino gutxiago badira: % 70.
- Egiaztagiria hogeita baino gehiago eta berrogeita hamar edo berrogeita hamar baino gutxiago badira: % 40.
- Egiaztagiria berrogeita hamar baino gehiago eta ehun baino gutxiago badira: % 30.
- Egiaztagiria ehun baino gehiago badira: % 20.

Laginaren hautaketa ausazkoa dela bermatzeko, BAL eta GAS dokumentuak aurkeztu eta gero, dirulaguntza ematen duen organoak eskatuko ditu lagineko gastu-frogagiri zehatzak.

#### **Bederatzigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.**

Dirulaguntza justifikatzeko epea honako hau izango da jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta: hilabete.

#### **Hamargarrena: Ordaintzeko prozedura.**

Dirulaguntzaren % 100 ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartu ondoren.



Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari (BDNS) jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

### **Hamaikagarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.**

Entitate onuradunak neurriak hartu beharko ditu diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela forman, dela iraupenean; esate baterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionalari edo haren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berberarekin.

### **Hamabigarrena: Euskararen erabilera.**

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

### **Hamahirugarrena: Genero-berdintasuna.**

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

- 1.- Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- 2.- Berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmoa jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.
- 3.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak edo enpresak.
- 4.- Era berean, ez dira diruz lagunduko emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia,



familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Debekua ezartzen da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duenaren, 4., 3. eta 27.2 artikuluetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikuluan, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **Hamalaugarrena: Jarraipen Batzordea.**

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Funtzio hauek izango ditu batzordeak: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburu Garikoitz Goikoetxea Etxeberriak eta Laskoiran ikastolako ordezkari Iñaki Olaetxea Amonarriek.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko.

#### **Hamabosgarrena: Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungi egingo da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

#### **Hamaseigarrena: Lan- eta zerga-legeria.**

Diruz lagundutako elkarteak bete egin beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienez.

#### **Hamazazpigarrena: Legeria osagarria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, honako lege-arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailearen 21ekoa; eta Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea.



**Hemezortzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.**

Bi aldeek konpromisoa hartzen dute izaera pertsonaleko datuei buruzko legerian xedatutakoa betetzeko, aplikatzekoak diren baldintzetan, bereziki kontuan hartuz honako hauek: batetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; bestetik, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen.

**Hemeretzigarrena: Gardentasun Ataria.**

Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da hitzarmenaren testua.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horrena fede ematen dut.

ALKATEA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

LASKORAIN IKASTOLAKO ORDEZKARIA

Iñaki Olaetxea Amonarriz

Nire aurrean,

UDAL-IDAIZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek jakinaraztea Laskorain ikastolari, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontu Hartzailletza Sailari.

**LAUGARRENA.-** Iragarkia igortzea Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera.

**BOSGARRENA.-** Dirulaguntza argitaratzea Tolosako Udalaren gardentasun-atarian.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen



TOLOSAKO  
UDALA

2024DO200022

Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoare erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekurtsolari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

**Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, udal-idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ALKATEA

UDAL-IDAIZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Sara Berasategui Fuertes



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026DO200019-Laskorain dekretua/Laskorain dekretua ()